

Ezkontzen kopurua % 1,7 jaitsi zen 2010ean

Bikote ezkondu berrien % 20 elkarrekin bizi ziren ezkondu aurretik, 2007ko % 59aren aldean


2010ean 9.075 ezkontza egin ziren Euskal AEn, aurreko urtean baino % 1,7 gutxiago. Eurretan 142 sexu bereko pertsonen artekoak izan ziren, Eustatek emandako datuen arabera.

Sexu ezberdineko egoiliarren arteko ezkontzak 8.933 izan ziren Euskal AEn, aurreko urtean baino 170 gutxiago, % 1,9ko jaitsierarekin.

Euskal AEko ezkontza-tasa (mila biztanleko 3,8 ezkontza) Espainiakoa baino zertxobait altuagoa da (% 3,7), baina Europar Batasuneko herrialdeen multzoarena baino baxuagoa (4,5eko tasa 2009an).

Amatasunaren adina igotzearekin batera, ezkontideen adina ere igo egin da. 2010ean ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 34,1 urte izan zen, eta 32,3 urte ezkondu ziren emakumezko ezkongabeena. Azken 25 urteotan, 1986tik, emazte ezkonberrien batez besteko adina 7,4 urtez igo da, eta senarrena 6,7 urtez.

1. grafikoa: lehen ezkontzako adina, sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Ezkondu aurretik ezkontideek zuten egoera zibilari dagokionez, aurreneko ezkontza izan zen gizonen % 89,4rentzat eta emakumeen % 90,5entzat. Uztailean egin zen ezkontzarik gehien: 1.522; ekainean ondoren (1.276), eta irailean (1.228).

2010eko ezkontzen % 64 ezkontza zibilak izan ziren


Azken urteotan gora egin du ezkontza zibilen kopuruak: 1990ean % 23 izan ziren, eta % 64 2010ean (5.710 ezkontza). 3.205 ezkontza katoliko izan ziren, eta 18 beste erlijio-konfesioetakoak.

Lurraldeka, ezkontza zibilen ehunekorik altuena Gipuzkoan gertatu zen (% 67); Bizkaian % 64 izan ziren ezkontza zibilak, eta Araban % 60. Erkidegotik kanpo ezkontu ziren Euskal AEko egoiliarren ehunekoa, ordea, % 48raino jaisten da ezkontza zibiletan.

Bikote ezkontu berrien % 20 elkarrekin bizi ziren, 2010ean ezkontu aurretik

Ezkondu aurretik, bikoteen % 20 elkarrekin bizi ziren; zifra honek 2008an hasitako beheranzko joera konfirmatzen du. Azken urteotan, ezkontu aurretik elkarrekin bizi ziren bikoteen portzentajea 1996ko minimotik (%19) 2007ko maximoraino (% 59) igo zen; ordutik hona, beheranzko joera bizia gertatu da.

2. grafikoa: ezkontu aurretik batera bizi diren bikoteak (%)



Iturria: Eustat. Euskal AEko ezkontzen estatistika

Ezkondu eta Euskal AEtik kanpo bizitzera joan zirenak (556 bikote) batez ere Madrilera, Kantabriara eta Nafarroara joan ziren. Norakoari dagokionez, aldeak badira

hiru herrialdeetan egindako ezkontzen artean: Arabakoak batez ere Madrilera, Errioxara eta Burgosera joan ziren; Bizkaikoak Kantabriara, Madrilera eta Burgosera; Gipuzkoakoek Madrilera, Nafarroara eta Frantziara jo zuten, batez ere.

Ezkontzen guztizkoaren % 15ean, ezkontideetako batek bederen atzerriko nazionalitatea zuen

Ezkontideen naziotasunari begiratzuz gero, 1.363 ezkontzatan (guztirakoaren %15,3) ezkontideetako bat bederen atzerritarra zen. Ezkontza hauen % 50,2an emakumea zen atzerriko nazionalitatea zuena, %29,5ean gizonezkoa zen atzerritarra, eta gainerako % 20,3an ezkontide biak.

Emakume ezkonberrien jatorrizko herrialdeari jarraiki, kopuruetan honakoak nabarmendu ziren: Brasil (148 emakume ezkonberri), Kolonbia (127), Bolivia (80), Dominikar Errepublika (43), Argentina (43) eta Ekuador (43). Gizonezkoetan, 88 ezkonberri ziren Marokokoak, 68 Kolonbiakoak, 40 Argentinakoak, 37 Aljeriakoak, 37 Boliviakoak eta 35 Portugalدارrak.

Ezkontza homosexualen kopurua % 11 hazi da aurreko urtearen aldean

2010ean sexu bereko ezkontideen arteko 142 ezkontza izan ziren; 75 gizonen artekoak izan ziren, eta 67 emakumeen artekoak. Lurraldeka, 18 Araban egin ziren, 46 Gipuzkoan, 68 Bizkaian eta 10 Euskal AEtik kanpo.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKAri buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKAri buruzko datu-bankua](#)